## ZUMAIAKO UDALA

*Gaia: Zumaiako udalerrian bizikletak eta trizikloak alokatzeko zerbitzua «Mugi» eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzen araudiaren behin betiko onarpena.*

Udalaren osoko bilkurak, 2011ko urriaren 27an, Zumaiako udalerrian bizikletak eta trizikloak alokatzeko zerbitzua «MUGi» eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzen araudiari hasierako onarpena eman zitzaion.

Araudi hori 30 eguneko epean jendaurrean jarri zen, 2011ko azaroaren 4ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako 209 zenbakidun iragarkiaren bidez.

Ordenantza jendaurrean egon den epe barruan alegazio edo iradokizun aurkeztu dira. Hori guztia dela eta, Udalaren osoko bilkurak, 2012ko urtarrilaren 26an alegazioak onartzea erabaki zuen.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da araudiaren testu osoa.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurreko izaeraz, Udal honen Osoko Bilkuraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte.

Zumaia, 2012ko urtarrilaren 27a.—Iñaki Agirrezabalaga Alkorta, Alkatea.

(188) (969)

*Zumaiako udalerrian bizikletak eta trizikloak alokatzeko zerbitzua («Mugi») eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzen araudia*

### I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Zerbitzuaren xedea.*

Zerbitzu honen xedea da mugikortasun iraunkorreko sistema automatiko alternatiboa jartzea herritarren eskura; sistema horren bidez, erabiltzaileak bizikleta eta trizikloa hartu ahalko du Araudi honetan ezarritako baldintzetan erabiltzeko.

*2. artikulua. Zerbitzu eremua.*

Zerbitzu eremua Zumaiako udalerriaren esparru geografikora mugatzen da.

Zumaiako Udalak bizikleta-guneak lekuz aldatu ditzake edo zerbitzu-puntuak gehitu eta erabiltzaileei horren berri emango zaie egoki den moduan.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Asunto: Aprobación definitiva de la normativa que establece las condiciones de uso del servicio Mugi, alquiler de bicicletas y triciclos en el municipio de Zumaia.*

El Pleno del Ayuntamiento de Zumaia, en sesión celebrada el 27 de octubre de 2011, aprobó inicialmente la normativa que establece las condiciones de uso del servicio Mugi, alquiler de bicicletas y triciclos en el municipio de Zumaia.

Dicha normativa fue sometida a información pública durante 30 días, mediante la inserción del correspondiente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 209, del 4 de noviembre de 2011.

Durante el período de información pública han sido presentadas diversas alegaciones o sugerencias. Posteriormente, el Ayuntamiento, en sesión plenaria celebrada el 26 de enero de 2012, acordó aprobar las alegaciones presentadas.

En consecuencia, se procede a publicar, como anexo al presente anuncio, el texto completo de la normativa aprobada, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, del 2 de abril, por la que se aprueban las Bases del Régimen Local.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación, Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Ello no obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes, contado desde el día seiguiente al de la publicación del presente anuncio. En ese caso, no podrá presentarse recurso contencioso-administrativo hasta la resolución del recurso de reposición.

Zumaia, a 27 de enero de 2012.—El Alcalde, Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

(188) (969)

*Reglamento de las condiciones para el acceso y utilización del servicio de préstamo de bicicletas y triciclos «Mugi» en el municipio de Zumaia*

### CAPÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto del servicio.*

Es objeto del presente servicio la puesta a disposición de la ciudadanía de un sistema automático alternativo de movilidad sostenible, a través del cual el usuario/a podrá retirar una bicicleta o triciclo para su utilización en las condiciones establecidas en el presente Reglamento.

*Artículo 2. Ámbito del servicio.*

El ámbito del servicio queda limitado al ámbito geográfico del municipio de Zumaia.

El ayuntamiento de Zumaia podrá modificar la ubicación de los expendedores así como ampliar los puntos de servicio, de lo que se informará a los usuarios /as a través de los medios que se consideren oportunos.

## II. KAPITULUA

## ZERBITZUAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA

*3. artikulua. Bizikletak eta trizikloak alokatzeko sistemaren ezaugarri teknikoak.*

Sistema honetan sartzen dira Zumaiako udalaren esparru geografikoan dauden bizikleta-guneetako aparkalekuak eta makina automatikoak. Bizikleta-gune bakoitzean honako osagaiak daude: Bizikletak eta trizikloak lotzeko markesina bere euskarriekin, giltzarrapo elektronikoari eragiteko mekanismoa eta alokatzeko bizikletak eta trizikloak.

*4. artikulua. Bizikleten erabiltzaileak.*

a) Zerbitzuan alta ematen duen 18 urte edo gehiagoko edozein pertsonak erabili ahalko du bizikletak alokatzeko zerbitzua.

b) Alokairuko bizikletak erabiltzeko gaitasunik ez duten pertsonak ezin dira erabiltzaile izan; edozein kasutan ere, bizikleta erabiltzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa eduki beharko dute, araudi honen arabera eta aplika daitezkeen bide-zirkulazioko arauei jarraiki.

*5. artikulua. Trizikloen erabiltzaileak.*

a) 60 urtetik gorakoak.

b) Bizikletan ibiltzeko ezintasun bat duten pertsonak. Ezintasuna justifikatu egin beharko da.

*6. artikulua. Zerbitzuan alta ematea.*

a) Bizikletak eta triziklokoak alokatzeko zerbitzua («Mugi») erabili nahi dutenek aurretik zerbitzuan alta eman beharko dute; horretarako, galdetegi bat bete behar dute eta alta hartzeko jarritako puntuetan aurkeztu.Galdetegi hori turismo bulegoan eskatu daiteke edo Udaletxean bertan, baita web orrian ere. Altan emandako pertsonei, zerbitzua erabil ahal izateko «Mugi» txartela emango zaie.Txartela pertsonala eta besterenezina da. Kontu korronte zenbakia eman beharko da ordainketa egiteko eta datu pertsonalak ere. Ordainketarekin zer ikusia duten banketxeko daturen bat aldatzen bada erabiltzaileak horren berri eman beharko du. Kontuaren titularra erabiltzailea ez bada, honen baimena eta nortasun agiriaren kopia bat aurkeztu beharko du.

Udalak urtero kuota zenbatekoa izango den onartuko du eta web orrian argitaratuko da. Banketxeak helbideratzea onartuko ez balu zerbitzuaren baja ekarriko du.

b) Zerbitzua erabiltzen duen bitartean, erabiltzaileak berarekin eraman beharko du txartela.

c) Erabiltzaile-txartela galtzen badu, lapurtzen badiote edo hondatzen bazaio, erabiltzaileak horren berri eman behako du lehenbailehen, hura baliogabetu eta txartel berria egiteko. Txartela modu desegokian erabiltzen bada, erabiltzailea izango da erantzulea, galera edo lapurreta jakinarazi arte.

*7. artikulua. Zerbitzuan baja ematea.*

Erabiltzaileak zerbitzuan baja eman ahal izango du alta emateko erabili zuen prozedura berari jarraituz. Erabiltzaileak zerbitzuan baja eman duela ulertuko da, berak hala eskatuta, eta, edozein kasutan ere, dokumentu honetan aurreikusten diren arrazoiengatik.

## CAPÍTULO II

## ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL SERVICIO

*Artículo 3. Características técnicas del sistema de préstamo de bicicletas y triciclos.*

El sistema comprende los aparcamientos y expendedores automáticos de bicicletas instalados en los diversos puntos del ámbito geográfico de Zumaia. Cada expendedor se compone de una marquesina de anclaje con los elementos de soporte, mecanismos para accionamiento del candado electrónico así como las bicicletas y triciclos de préstamo.

*Artículo 4. Usuarios/as de las bicicletas.*

a) Podrán ser usuarios/as del servicio de préstamo de bicicletas todas aquellas personas mayores de edad (18 o más años).

b) No podrá ser usuario/a la persona que esté impedida para el uso de las bicicletas objeto del préstamo y deberá, en todo caso, tener la capacidad psíquica y física para utilizar la bicicleta conforme a este reglamento y demás normativa sobre circulación vial que resulte de aplicación.

*Artículo 5. Usuarios de los triciclos.*

a) Mayores de 60 años.

b) Los que tengan una deficiencia para utilizar las bicicletas que esté justificada.

*Artículo 6. Alta en el servicio.*

a) Toda persona que pretenda utilizar el servicio de préstamo de bicicletas y triciclos «Mugi» deberá previamente darse de alta en dicho servicio, para lo cual se rellenará un formulario que se presentará en la oficina de turismo. Dicho formulario estará disponible en la oficina de turismo, en el Ayuntamiento y en la página web del servicio. A todas las personas dadas de alta se les proporcionará la tarjeta «Mugi» que da acceso al servicio. Esta tarjeta es personal e intransferible. Es imprescindible dar un número de cuenta bancario para el abono de la cuota anual, así como los datos personales. El usuario/a se compromete a comunicar cualquier modificación de su relación con la entidad bancaria titular de la cuenta cuyos datos haya facilitado, que sea susceptible de afectar el buen fin de la autorización de cargo. Si no se es titular de la cuenta, se deberá presentar autorización del titular, junto con copia del documento de identidad de este.

El Ayuntamiento aprobará anualmente la cuota de los tipos de abono y se podrá encontrar en la página web del servicio. El rechazo de la domiciliación por parte del banco podrá conllevar la baja del servicio.

b) El usuario/a deberá llevar consigo la tarjeta de usuario cuando esté utilizando el servicio.

c) En caso de pérdida, robo o deterioro de la tarjeta de usuario/a, el usuario/a deberá notificarlo inmediatamente en las oficinas municipales o al personal de Mugi, con el fin de anularla y como requisito previo a la emisión de una nueva tarjeta. El usuario/a se hará responsable del uso indebido de la misma hasta el momento en que notifique su perdida o robo.

*Artículo 7. Baja del servicio.*

El usuario/a podrá darse de baja del servicio siguiendo el mismo procedimiento establecido para darse de alta. Se entenderá que el usuario/a está dado de baja del servicio a instancia propia y en todo caso por las causas previstas en el presente documento.

*8. artikulua. Zerbitzuaren funtzionamendua.*

Bizikleta-guneetako aparkalekutik bizikleta eta trizikloa hartzeko, honako pausoak eman behar ditu erabiltzaileak:

a) Erabiltzailea bere txartelaren bidez identifikatuko da zutabe informatizatuan. Identifikatu ondoren, eskura dauden bizikleten edo trizikloen artean aukeratzen duena esleituko dio sistemak.

b) Segidan, ukipen-pantailan aukeratutako bizikleta edo trizikloa askatuko du sistemak.

c) Bizikleta edo trizikloa erabili ondoren, erabiltzaileak edozein aparkalekutara jo dezake hura itzultzeko. Ez dago bizikleta edo trizikola jaso den lekuan bertan itzuli beharrik.

d) Sistemak ez die bizikletarik edo triziklorik hartzen utziko zerbitzua erabiltzeko arauak edo irizpideak betetzen ez dituztenei.

*9. artikulua. Erabiltzeko baldintzak.*

a) Oro har, bizikleta edo triziklo zerbitzua egunero erabili daiteke ordutegi honen barruan:

— Astelehenetik ostegunera: 5:30tatik 23:00tara.

— Ostiraletan: 5:30tatik 22:00tara.

— Larunbatetan 7:30tatik 22:00tara.

— Igandetan 7:30tatik a 23:00tara.

Ostiraletan eta larunbatetan gaueko hamarretatik aurrera bizikletak eta trizikloak jaso eta biltegian gordeko dira.

Bai ordutegia, bai erabiltzeko baldintzak, alda daitezke Zumaiako Udalak osoko bileran horretarako akordio arrazoitua hartzen badu.

b) abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an ez da zerbitzurik izango, eta Zumaiako Udalak izendatzen dituen herriko jaietan ere ez.

c) Era berean, ezinbesteko kasuetan, zerbitzua eten egin ahalko da bizikleta-guneren batean.

d) Gehienez ere ordu bateko epean erabili ahal izango da bizikleta edo trizikloa eta sistemak dituen aparkalekuren batean utzi beharko da denbora hori pasa baino lehen. Behin bizikleta edo trizikloa utziz gero, ezin izango da berriz erabili 10 minutuko tartea pasatu arte. Ordu beteko epea gaindituz gero, diruzigorra ezarriko da eta erabiltzaileak bere gain hartu beharko du.

Kontrol sisteman jasotako datuak, bizikleta edo trizikloa hartu eta uzten den ordua erregistratzen dutenez, erabili den denbora frogatzeko erabiliko dira.

## III. KAPITULUA

## ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA DEBEKUAK

*10. artikulua. Erabiltzailearen eskubideak.*

Edozein pertsonak dauka zerbitzuan alta eman eta bizikletak edo trizikloak erabiltzeko eskubidea, hiri barruan nahiz hiri artean joan-etorriak egiteko, baldin eta araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

*Artículo 8. Funcionamiento del servicio.*

Para la recogida de una bicicleta o triciclo de cualquier aparcamiento expendedor, el usuario/a del suministro seguirá los siguientes pasos:

a) El usuario/a se identificará en la columna informatizada con la tarjeta que posee. Una vez identificado, el sistema asignará una bicicleta o triciclo que desea llevarse entre las disponibles.

b) Seguidamente, el sistema liberará la bicicleta o triciclo seleccionada sobre la pantalla táctil.

c) Para la devolución de la bicicleta, al terminar el uso, el usuario/a se acercará a cualquier aparcamiento expendedor para depositarla. No es obligatorio entregar la bicicleta o triciclo en el punto de préstamo en el que se recogió.

d) El sistema impedirá el acceso a todos aquellos usuarios/as que infrinjan las normas o criterios para el uso del servicio.

*Artículo 9. Condiciones de utilización.*

a) Con carácter general, el usuario/a del servicio podrá hacer uso diario de las bicicletas o triciclos dentro del siguiente horario:

— De lunes a jueves de 5:30 h. a 23:00 h.

— Viernes de 5:30 h. a 22:00 h.

— Sábado de 7:30 h. a 22:00 h.

— Domingos de 7:30 h. a 23:00 h.

Los viernes y sábados a partir de las 22:00h. se procederá a la recogida y almacenamiento de las bicicletas y triciclos.

Tanto este horario como las condiciones de uso, podrán ser modificados mediante acuerdo motivado del Ayuntamiento de Zumaia.

b) No se prestara servicio los días 25 de diciembre, 1 de enero y 6 de enero y las festividades locales así designadas por el Ayuntamiento.

c) Asimismo el servicio podrá ser suspendido temporalmente en alguno de los aparcamientos expendedores debido a causas de fuerza mayor.

d) La utilización de la bicicleta o triciclo se limita a un plazo máximo de 1 hora, debiendo el usuario/a depositarla en cualquiera de los aparcamientos del sistema antes de que transcurra dicho período de tiempo. Una vez entregada la bicicleta o triciclo, el usuario/a no podrá volver a utilizarla hasta que haya transcurrido un lapso de, al menos, 10 minutos. En caso de exceder el tiempo de uso limitado en 1 hora, se impondrá una penalización económica del que el usuario/a deberá hacerse cargo.

Los datos recogidos en el sistema de control, que registra la hora de retirada y devolución de la bicicleta o triciclo, constituyen la prueba del tiempo de utilización del servicio a todos los efectos.

## CAPÍTULO III

## DERECHOS, OBLIGACIONES Y PROHIBICIONES DE LOS USUARIOS

*Artículo 10. Derechos del usuario/a.*

Cualquier persona tiene derecho a darse de alta en el servicio, cumpliendo las condiciones establecidas en el presente reglamento, así como a hacer uso de las bicicletas para llevar a cabo desplazamientos urbanos.

*11. artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak.*

a) Txartela pertsonala eta besterezina da.

b) Bizikletak edo trizikloak mailegatzeko zerbitzuaren titularrak izango dira araudi honetako arau-hausteen erantzuleak.

c) Bizikleta edo trizikloa erabiltzen duen bitartean, erabiltzaileak hura zaindu, bide-zirkulazioko arauak errespetatu eta alokairu zerbitzua zuzen erabili beharko du. Bizikleta edo trizikloa hondatu, galdu eta lapurtzea ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu. Bizikleta edo trizikloa bueltatzerakoan aparkalekuan ainguratua geratzen dela ziurtatu beharko du. Kaskoa eta jaka islatzailea erabiltzea gomendatzen da, batez ere ikuspen gutxiko orduetan.

d) Zumaiako Udala ez da izango erabiltzaileak bizikleta edo trizikloa erabiltzen duenean izan edo eragin ditzakeen kalteen erantzule eta ez ditu bere gain hartuko erabilera desegokiak sortutako kalteak, ezta erabiltzaileak hirugarrenei eragindakoak ere.

e) Erabiltzailea da erantzule bakarra bai bere buruari edo besteri eragindako lesio bai eta bere ondasunei edo besteenei egindako kalteena ere, nola bizikleta edo trizikloa behar den bezala erabiltzekoan eragindakoena hala behar ez bezala erabilitakoen eragindakoena.

f) Erabiltzaileak zehaztutako ordutegian hartu eta utzi beharko du bizikleta edo trizikloa. Ez betetzeak zerbitzuaren desaktibazio oso edo partziala ekarriko du.

g) Maileguak irauten duen bitartean, erabiltzaileak leku estrategiko, egoki eta seguruetan aparkatu beharko du bizikleta edo trizikloa, ez dezan bidea trabatu eta segurtasunik eza eragin.

h) Bizikleta edo trizikloa gidatzeari dagokionez, Estatuko, Erkidegoko nahiz Udaleko edozein Agintarik edo Erakundek ezarritako betebeharren edo arau-hausteen erantzule izango da erabiltzailea.

i) Gorabeheraren bat gertatzen bada, erabiltzaileak lehenbailehen abisatu beharko du horretarako jarritako telefonora; esaterako, bizikleta edo trizikloa hondatu edo matxuratzen bada, edo zerbitzuaren ondorioz erabiltzaileari gerta dakiokeen beste edozein egoera, edo zerbitzuari eragiten diona.

j) Bizikletaren edo trizikloaren mekanikari eragiten dion gorabeheraren bat gertatzen bada, erabiltzaileak horren berri eman beharko du eta bizikleta edo trizikloa erabiltzailearen ardurapean geldituko da, sistemaren guneren batean utzi arte edo Zumaiako Udalaren edo zerbitzuaren erantzule den enpresaren esku utzi arte.

k) Bizikleta edo trizikloa galtzen badu, edo ostu edo ebasten badiote, erabiltzaileak gehienez bi orduko epean salatu beharko du haren desagerpena Zumaiako Udalan edo zerbitzuaren erantzule den enpresa. Era berean, salaketa jarri beharko du Udaltzaingoan edo Ertzaintzan.

l) Bizikleta edo trizikloa galtzen badu, edo ostu edo ebasten badiote, erabiltzaileak salaketaren kopia aurkeztu beharko du Zumaiako Udalan, gehienez ere salaketa egin den egunaren hurrengo 24 orduetan edo hurrengo lanegunean. Salaketa aurkezten ez bada, 5 urteko baja izango du, eta gainera, diru-zigor oso larria; erabiltzaileak zerbitzuan alta eman zuenean izenpetutako fidantza ere ordaindu beharko du.

m) Arrazoirik gabe bizikleta edo trizikloa bertan behera uzten bada, zerbitzuan baja izango du urte horretako alokairu-epe osoan, eta gainera, diru-zigor oso larria.

*Artículo 11. Obligaciones del usuario/a.*

a) La tarjeta de usuario/a es personal e intransferible.

b) Serán responsables de las infracciones a esta ordenanza los titulares del servicio de préstamos de bicicletas o triciclos.

c) El usuario/a tiene la obligación, durante el tiempo de utilización, de custodiar la bicicleta o triciclo, respetar las normas de circulación vial y hacer un uso correcto del servicio de préstamo, deberá tomar las medidas oportunas para evitar su robo, pérdida o deterioro y asegurarse de su correcto anclaje al soporte de estacionamiento. Se recomienda el uso de casco y de chaleco reflectante, en especial en horas de menor visibilidad.

d) El Ayuntamiento no se hace responsable de los daños que el usuario/a pueda sufrir o producir mientras hace uso de la bicicleta o triciclo ni de los daños o perjuicios producidos por el mal uso de la misma, ni los causados a terceras personas por el usuario/a de ésta.

e) La persona usuaria es la única responsable de las lesiones causadas a si misma o a terceros así como de los daños a bienes propios o a terceros provocados tanto por el uso normal como indebido de las bicicletas o triciclos.

f) El usuario/a deberá retirar y restituir la bicicleta o triciclo dentro del horario establecido. El incumplimiento de esta obligación dará lugar a la desactivación total o parcial del servicio.

g) El usuario/a se compromete durante el tiempo que dure el préstamo a aparcar la bicicleta o triciclo en zonas estratégicas, adecuadas o seguras que no interfieran el paso ni potencien situaciones de inseguridad.

h) El usuario/a deberá ser responsable en todo momento de las obligaciones o infracciones que se determinen por cualquier Autoridad u Organismo, ya sea Estatal, Autonómico o Local, por razón de la conducción de la bicicleta o triciclo.

i) El usuario/a tiene la obligación de comunicar de inmediato al teléfono dispuesto para ello las incidencias que se produzcan, tales como el deterioro o fallo que impida o dificulte el uso de la bicicleta o triciclo, así como cualquier situación en la que pudiera verse involucrado el usuario/a como consecuencia del servicio, o que afecte al mismo.

j) En caso de incidente que afecte a las condiciones mecánicas de la bicicleta o triciclo y sin perjuicio de la obligación de comunicación, esta quedará bajo la responsabilidad del usuario/a hasta que la deposite en un sistema o la ponga a disposición de l Ayuntamiento o de la empresa responsable del servicio.

k) En caso de pérdida, robo o hurto, el usuario/a tiene la obligación de denunciar en un plazo máximo de dos horas la desaparición de la bicicleta o triciclo al Ayuntamiento o a la empresa responsable del servicio. Asimismo deberá formular una denuncia ante la Policía Local o ante la Ertzaintza.

l) En caso de pérdida, hurto o robo de la bicicleta, la persona usuaria de la misma deberá entregar al Ayuntamiento una copia de la denuncia presentada en el plazo máximo de las 24 horas siguientes a la fecha de la denuncia o día hábil inmediatamente posterior. En caso de no presentar dicha denuncia tendrá baja de 5 años, además de una sanción económica tipificada como muy grave.

m) El abandono injustificado de la bicicleta o triciclo conllevará la baja en el servicio durante todo el periodo de préstamo del año en curso, además de una sanción económica tipificada como muy grave.

n) Zerbitzuaren alta eskaerako agirian dauden daturen bat aldatzen bada, horren berri eman beharko du erabiltzaileak. Baldintza hori betetzen ez bada, zerbitzua desaktibatzea eta baja eragin dezake.

o) Borondatezko baja eman daiteke bizikletak edo trizikloak mailegatzeko sisteman; horretarako, nahikoa da baja eskaera egitea eta txartela entregatzea.

p) Zerbitzua urtebetean erabiltzen ez bada, erabiltzailearen txartelari automatikoki emango zaio baja.

q) Bizikleta edo trizikloa itzultzen ez bada, bi errekerimendu igorriko zaizkio azken erabiltzaile moduan ageri den mailegu-zerbitzuaren titularrari. Bi Errekerimendu horiek egin ondoren, bizikleta edo trizikloa itzultzeko exijituko zaio titularrari, edo bestela ibilgailuaren balio estimatua ordaintzeko.

*12. artikulua. Debekuak.*

Erabat debekatuta daude honako hauek:

a) Ezarritako ordu eta lekuetatik kanpo erabiltzea bizikleta edo trizikloa.

b) Bizikleta edo trizikloa mailegatzea, alokatzea, ematea edo besteren esku uztea, irabazteko asmoz edo halakorik gabe.

c) Bizikleta edo trizikloa edozein eratako lehiaketetan erabiltzea, baita mailadietan, garajeetako arrapaletan, espaloietan eta halakoetan erabiltzea ere.

d) Bizikleta edo trizikloa desmuntatu eta manipulatzea; egoki erabiltzeko egin behar diren zainketak, - erabiltzaileak erraz egin ditzakeenak baino ez dira onartuko.

e) Zerbitzuaren xedea ez diren helburuetarako erabiltzea, bereziki, merkataritza-helburuetarako edo norberaren lanbiderako.

f) Bizikletan edo trizikloan pertsona edo animaliaren bat eramatea, edo horretarako elementuak instalatzea.

## IV. KAPITULUA

## ZIGORTZEKO ARAUBIDEA

*13. artikulua. Printzipio orokorrak.*

a) Araudi honen Zehatzeko araubidea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Zehatzeko prozeduraren eta hura garatzen duten arauei dagokien azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako printzipioek gidatzen dute.

b) Era berean, aplikagarriak izango dira Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen IX tituluan jasotako xedapenak, hura garatzen duten arauak eta araudi honen xedapenak.

*14. artikulua. Arau-hauste motak.*

1. Araudi honen xedapenen arau-hausteak honela sailkatzen dira: Oso larriak, larriak eta arinak.

2. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Zerbitzua erabiltzeko eskubidea dutenei erabilera eragoztea edo oztopoak jartzea.

b) Zerbitzua osatzen duten instalazio eta elementuetan hondamen-ekintza larriak eta garrantzitsuak egitea.

c) Bizikleta edo trizikloa bertan behera uztea edo galtzea.

n) El usuario/a tiene la obligación de comunicar el cambio de alguno de los datos contenidos en el documento de solicitud de alta en el servicio. Este incumplimiento podrá dar lugar a la desactivación del servicio y la baja en el mismo.

o) Se podrá cursar baja voluntaria del sistema de préstamo de bicicletas y triciclos; para ello únicamente necesitará presentar un escrito solicitando la baja junto con la entrega de la tarjeta.

p) En caso de no utilizar el servicio en el plazo de un año se dará de baja la tarjeta de usuario/a de forma automática.

q) En caso de no devolver la bicicleta o triciclo se enviarán dos requerimientos al titular del servicio de préstamo que constan como último usuario/a de la misma, tras estos dos requerimientos se exigirá al titular la devolución de la bicicleta o triciclo, o el abono del valor estimado de la misma.

*Artículo 12. Prohibiciones.*

Queda prohibido de forma terminante:

a) La utilización de la bicicleta o triciclo fuera de horario y lugares establecidos.

b) Prestar, alquilar, ceder o realizar cualquier otro acto de disposición de la bicicleta o triciclo a favor de terceros, con o sin ánimo de lucro.

c) El uso de la bicicleta o triciclo en competiciones de cualquier clase, así como lugares tales como escalinatas, rampas de garaje, aceras o similares.

d) El desmontaje o manipulación de la bicicleta o triciclo, excepto aquellas actuaciones de mera conservación que resulten necesarias para su uso y que no entrañen dificultad alguna para el usuario/a.

e) El uso de la bicicleta o triciclo para fines distintos a los que constituyen el objeto del servicio y en particular su uso con fines comerciales o profesionales.

f) El transporte en la bicicleta o triciclo de cualquier persona o animal e integrar elementos ajenos que puedan servir para estos fines.

## CAPÍTULO IV

## RÉGIMEN SANCIONADOR

*Artículo 13. Principios generales.*

a) El régimen Sancionador de este reglamento se rige por los principios contenidos en la Ley 30/92, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Sancionador y normas de desarrollo.

b) Asimismo, serán de aplicación las disposiciones contenidas en el título XI de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, normas de desarrollo y de este reglamento.

*Artículo 14. Clases de infracciones.*

1. Las infracciones a las disposiciones de este Reglamento se clasificarán en muy graves, graves, leves.

2. Son infracciones muy graves:

a) Impedir u obstaculizar el uso del Servicio a otras personas con derecho a su utilización.

b) Los actos de deterioro grave y relevante de las instalaciones y elementos que integran el servicio.

c) El abandono y pérdida de la bicicleta o triciclo.

d) Bizikletaren edo trizikloaren galera, lapurreta edo ebasketa ez salatzea, Araudi honen 11.k) artikuluan ezarritako epean.

e) Bizikletaren edo trizikloaren galera, lapurreta edo ebasketagatik egindako salaketa Zumaiako Udalari ez ematea, Araudi honen 11.l) artikuluan ezarritako epean.

f) Erabilera txarragatik bizikleta edo trizikloa galdu, lapurtu edo hondatzea.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Bizikleta edo trizikloa ez zaintzea norberaren esku dagoen bitartean.

b) Zerbitzua osatzen duten instalazio eta elementuetan hondamen-ekintza larriak eta garrantzitsuak egitea.

c) Bizikleta edo trizikloa bertan behera uztea.

d) Hogeita lau ordu baino gehiagoko atzerapenaz entregatzea bizikleta edo trizikloa.

e) Araudi honen 12. artikuluko debekuak ez betetzea.

4. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Zerbitzua osatzen duten instalazio eta elementuetan hondamen-ekintza arinak egitea.

b) Hogeita lau ordurainoko atzerapenaz entregatzea bizikleta edo trizikloa.

c) Araudi honen 11 g) artikuluan xedatutakoa ez betetzea.

d) Erabiltzailearen datu pertsonalen bat aldatzen denean, Zumaiako Udalari edo zerbitzuaren erantzule den enpresa horren berri ez ematea.

e) Araudi honetan eta artikulu honen aurreko zenbakietan tipifikatuta ez dauden arauak haustea.

*15. artikulua. Zigorrak eta zerbitzuaren baja.*

1. Araudi honetan tipifikatutako arau-hausteek honako zigorrak izango dituzte:

a) Oso larriak: 301,00 €tik 1.200 € arteko isuna.

b) Larriak: 101,00 €tik 300 € arteko isuna.

c) Arinak: Isuna gehienez ere 100,00 €.

2. Araudi honetan tipifikatutako arau-hausteek Zerbitzuaren baja ekarriko dute, sailkapen honen arabera:

a) Oso larriak: Bost urte arteko baja Zerbitzuan.

b) Larriak: Urtebete arteko baja Zerbitzuan.

c) Arinak: Hilabete arteko baja Zerbitzuan.

*16. artikulua. Preskripzioa.*

1. Araudi honetan aurreikusitako arau-hausteak eta zigorrak preskribatu egiten dira.

Arau-hausteak preskribatuko dira:

a) Oso larriak hiru urtera.

b) Larriak bi urtera.

c) Arinak sei hilabetera.

Zigorrak preskribatuko dira:

a) Oso larriak hiru urtera.

b) Larriak bi urtera.

c) Arinak urte betera.

d) La no denuncia de la pérdida, robo, o hurto de la bicicleta o triciclo en el plazo establecido en el artículo 11.k) del presente Reglamento.

e) La no entrega al Ayuntamiento de la denuncia formulada por pérdida, robo o hurto de la bicicleta o triciclo en el plazo establecido en el artículo 11.l) del presente Reglamento.

f) Robo, pérdida o deterioro de la bicicleta o triciclo por uso indebido.

3. Son infracciones graves:

a) La no custodia de la bicicleta o triciclo durante el tiempo de disposición de la misma.

b) Los actos de deterioro grave de las instalaciones y elementos que integran el Servicio.

c) El abandono de la bicicleta o triciclo.

d) El retraso de la entrega de la bicicleta o triciclo por más de veinticuatro horas.

e) El incumplimiento de las prohibiciones del artículo 12 del presente Reglamento.

4. Son infracciones leves:

a) Los actos de deterioro leve de las instalaciones y elementos que integran el Servicio.

b) El retraso de la entrega de la bicicleta o triciclo por plazo de hasta veinticuatro horas

c) El incumplimiento de lo dispuesto en el artículo 11 g) del presente Reglamento.

d) La no comunicación al Ayuntamiento o a la empresa responsable del servicio del cambio de algún dato personal del usuario/a.

e) Cualquier infracción de las normas de este Reglamento no tipificado en este y en los números anteriores de este artículo.

*Artículo 15. Sanciones y baja del servicio.*

1. Las infracciones tipificadas en este Reglamento serán sancionadas de la siguiente forma:

a) Muy graves: Multa de 301,00 € hasta 1.200,00 €.

b) Graves: Multa de 101,00 € hasta 300,00 euros.

c) Leves: Multa hasta 100,00 euros.

2. Las infracciones tipificadas en este Reglamento llevarán aparejada la baja en el Servicio de la siguiente forma:

a) Muy graves: Baja de hasta cinco años del Servicio.

b) Graves: Baja de hasta un año del Servicio.

c) Leve: Baja de hasta un mes del Servicio.

*Artículo 16. Prescripción.*

1. Las infracciones y sanciones previstas en este Reglamento prescriben:

Las infracciones prescribirán:

a) Las muy graves a los tres años.

b) Las graves a los dos años.

c) Las leves a los seis meses.

Las sanciones prescribirán:

a) Las muy graves a los tres años.

b) Las graves a los dos años.

c) Las leves al año.

2. Arau-hausteen preskripzio-epea arau haustea egin den egunetik hasita kontatuko da.

3. Zigorren preskripzio-epea zigorra irmo bihurtzen duen ebazpena ematen den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen.

4. Arau-hausteen eta zigorren etenaldia Legeak ezarritako terminoetan gertatuko da.

*17. artikulua. Arau-hauste eta zigor independenteak eta beste sektore maila batzuek eskatu dezaketen zigor mailaren lehentasuna.*

a) Araudi honetan tipifikatutako arau-hausteengatik ezarritako zigorrak ez dute zerikusirik beste ordenamendu sektorial batzuen arabera erantzukizuna eduki dezaketen ekintzei dagozkienekin.

b) Administrazioko zigor-prozeduraren xede diren ekintzek maila penala dutenean, administrazio-prozedura etenda geldituko da zigor prozeduraren ebazpena eman arte.

*Lehenengo azken xedapena. Indarrean sartzea.*

Araudi hau indarrean sartuko da testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta gero eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren.

2. El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día en que la infracción se hubiera cometido.

3. El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la que se impone la sanción.

4. La interrupción de la prescripción de infracciones y sanciones se producirá en los términos establecidos en la Ley.

*Artículo 17. Infracciones y sanciones independientes y prevalencia del orden penal exigible por otros órdenes sectoriales.*

a) Las sanciones impuestas por las infracciones tipificadas en este Reglamento son independientes de aquellas que correspondan cuando los actos puedan estar incursos en responsabilidad con arreglo a otros ordenamientos sectoriales.

b) Cuando los actos objeto del procedimiento sancionador administrativo tengan relevancia penal, se dejará en suspenso el procedimiento administrativo hasta la resolución del procedimiento penal.

*Disposición final primera. Entrada en vigor.*

El presente Reglamento entrará en vigor una vez publicado íntegramente su texto en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.